



INMA ERREA CLEIX  
IDAZLEA EDO

## Ekolo

**A**ldizkari honetarako idatzi nuen lehen artikularekin (*Garai modernoak*, 2004) egin dut topo, eta harritu nau gaurkotasunak. Hemezortzi urte pasa eta gero, gai berberekin gabiltza atzera eta aurrera: orduan nonahi hazten hasiak ziren haize-errotak (jarraitu zuten ugaltzen, eta orain Nafarroan, adibidez, energia-iturri nagusietako bat dira), hiri-baratzeak (Arga ibaiaren ertzean zeuden batzuk desagerrarazi zituzten, baina orain beste batzuk eratu dituzte Argaren inguruetan zein beste hainbat tokitan), lur-irensle asezinak diren eraikuntzak (halakoek orain ere bere erara aurrera)...

Ez naiz ausartzen esaten noraino zegoen hedatua orain dela bi hamarkada mugimendu ekologista –nago ordurako aski ezaguna zela Euskal Herrian, baina jarraitzen zuen joera alternatiboa izaten, hippyen kontua oraindik–, baina seguru nago ohitura eta jokamolde ekologistak ez zeudela boladan orain bezala, ez zirela oraindik nagusi. Azken urteetan jende asko di-da iragan baita “ekologista horiek” esatetik elikagai “ekologikoak” kontsumitzera.

Ez dut izan nahi ironikoa, serio hartzen ditut kontu hauek, eta pozten naiz ikus-tean gero eta jende gehiagok hartzen duela kontzientzia ekologiarren beharraz. Gero eta jende gehiago sentitzen dela “ekolo”.

Ohartzen naiz, bestalde, praktika ekologisten hedapenak gero eta kontraesan gehiago ekartzen dituela, eta konplexuagoak. Adibidez, elikagai ekologikoak ekoizpen-, banaketa- eta merkataritza-sare handietan sartu izanak baditu alde ilunak eta zalantzarriak. Eta haize-errota erraldoi horiek energia berriztagarria sortzen dute, baina eragin kaltegarria ere badute paisaian, faunan, eta oro har ekosistemetan (galdetu, bestela, Gironan errota itsasoan paratzearen kontra borroka bizian ari diren ekologistei). Zer esanik ez hondakinei buruz (bereizketak gora eginda ere, ez dago errefusa desagerrarazteko modu onik, eta salgaiak ekologikoak zein konbentzionalak izan, sarri dakartzate gehiegizko bilgarriak), edo garraiobideei buruz (auto elektrikoa da egiatan soluzioa?).

Guztiarekin ere, “ekoloenak edo” enpresa eta erakunde handiak dira orain, beti bezala denetan buruzagi (eta honetan bai, honetan ironia baliatu nahi dut). Arazo ekologiko larriak sortu dituzten horiek, urtetan eta urtetan ekologismoaren aldarriei entzungor eta itsu aritu direnek –eta, are, erasokor ere– gidatuko gaituzte ekologiarren paradisura –betiere dirua lagun–. Gaitz erdi, zuzen egiten badute (baina ez naiz fio). ●

## Haurkeriak



ITXARO BORDA  
IDAZLEA

**B**oterera heltzen diren politikarien ametsa *tabula rasa* egitearena ote da? Bazterrak, erakundeak, egiturak, elkartasunak, sindikatuak suntsitu eta desaktibatuz, gobernatzaren den mundu horri reset bat eginarazi eta datozen milenarioentzat, makina berriz abiarazteko pretentsio argi eta garbia dute. Neoliberalismoaren zeregina da gaur egun, aurreko hamarkadetakoa ideologia mesianikoen ildotik edo hauen orde. Buruzagiek, garapenaren eta indar militarren ikurrak airean, batzuetan eskuin-muturrera plegatuz, Italian edo Hungarian bezala, zalantzan eman ezinezko autoritatea bermatu nahi dute.

Macron ere xenda horretatik doa. Ez da Frantzia, baitezpada erretreten erreforma baten premiarik, baina gizonak sakon sartua dauka buruan eta dudarik gabe, bideratuko du, batetik, pribatizazioaren osteko diru-altzorraren aiduru diren pentsio fondoan onerako eta bestetik, bere ustezko autoritatea erreforma horretan errotzen delako. Erran du duela gutxi: *“Ce qui se joue, c’est mon autorité”* (Nire autoritatea da jokoan dagoena).

Urguilu hutsak sustatu boteretsuen haurkeriak garesti ordaintzen dituzte herritarrek, bereziki herritar zaurgarriek. ●